(31) Procede por tanto que los Estados miembros, sobre la base de las normas internacionales desarrollados por el Consejo de Europa a este respecto, apliquen salvaguardias legales eficaces para el funcionamiento independiente de los prestadores del servicio público de medios de comunicación en toda la Unión, sin injerencias gubernamentales, políticas o de intereses económicos o privados, sin perjuicio del Derecho constitucional nacional compatible con la Carta. Entre estas salvaguardias se deben incluir principios adaptados a la organización del servicio público de medios de comunicación de cada Estado miembro, como las establecidas en el ámbito de la legislación jurídico-administrativa nacional o en el Derecho de sociedades nacional, según sean de aplicación a empresas cotizadas, por lo que respecta al nombramiento o la destitución de las personas u organismos que puedan intervenir en el establecimiento de políticas editoriales o que constituyan la máxima autoridad decisoria en ese sentido dentro de los prestadores del servicio público de medios de comunicación. Esos principios deben establecerse a escala nacional. También es necesario garantizar que, sin perjuicio de la aplicación de las normas sobre ayudas estatales de la Unión, los prestadores del servicio público de medios de comunicación se

herritarrek beste informazio-iturri batzuetara jotzea eragin lezake, batez ere lineako plataformetan eskuragarri daudenetara, eta horrela are gehiago ahulduko litzateke barne-merkatuko baldintza-berdintasuna.

(31) Beraz, bidezkoa da estatu kideek, Europako Kontseiluak horri buruz garatutako nazioarteko arauetan oinarrituta, lege-babes eraginkorrak aplikatzea hedabide-zerbitzu publikoaren emaileek independentziarekin jardun dezaten Batasun osoan, gobernuen, politikarien eta interes ekonomiko edo pribatuen injerentziarik gabe, hargatik eragotzi gabe Gutunarekin bateragarria den zuzenbide konstituzional nazionala. Babes horietako batzuk estatu kide bakoitzeko hedabide-zerbitzu publikoaren antolamendura egokitutako printzipioak izan behar dira, hala nola legeria juridiko-administratibo nazionalen ezarritakoak edo sozietate-zuzenbide nazionalen ezarritakoak, enpresa kotizatuei aplikatzen zaizkien heinean, politika editorialak ezartzen esku har dezaketen edo, zentzu horretan, hedabide-zerbitzu publikoa ematen dutenen barruan agintaritza erabakitzaile gorenaren pertsonak edo organismoak izendatzeari edo kargutik kentzeari dagokionez. Printzipio horiek estatu mailan ezarri behar dira. Halaber, Batasunaren estatu-laguntzei buruzko arauen aplikazioa eragotzi gabe, bermatu behar da hedabide-zerbitzu publikoaren emaileek finantzaketa-prozedura garden eta objektiboak baliatuko dituztela, zerbitzu publikorako mandatua betetzeko behar duten finantzaketa egokia



beneficien de procedimientos de financiación transparentes y objetivos para asegurar una financiación adecuada y estable para cumplir su mandato de servicio público, permitir la previsibilidad en su planificación y el desarrollo dentro de su mandato de servicio público. Es preferible que esa financiación deba decidirse y adecuarse sobre una base plurianual, en consonancia con el mandato de servicio público de los prestadores del servicio público de medios de comunicación, a fin de evitar el riesgo de influencia indebida que puede derivarse de las negociaciones presupuestarias anuales. El presente Reglamento no afecta a las competencias de los Estados miembros para facilitar la financiación de los prestadores del servicio público de medios de comunicación consagrada en el Protocolo n.º 29.

eta egonkorra ziurtatzeko, finantzaketaren plangintza aurreikusteko modukoa izateko eta zerbitzu publikorako mandatuaren barruan garatzeko. Hobe da finantzaketa urte anitzekoa izatea eta horren arabera erabakitzea eta egokitzea, hedabide-zerbitzu publikoaren emaileei emandako zerbitzu publikorako mandatuarekin bat etorritik, urteko aurrekontu-negoiazioetatik erator daitekeen bidegabeko eraginaren arriskua saihesteko. Erregelamendu honek ez ditu ukitzen hedabide-zerbitzu publikoaren emaileen finantzaketa errazteko estatu kideek dauzkaten eskumenak (29. Protokoloa).

(32) Es crucial que los destinatarios de servicios de medios de comunicación sepan con certeza a quién pertenecen los medios de comunicación y quién está detrás de ellos, de modo que puedan detectar y entender posibles conflictos de intereses. Esto es un requisito previo necesario para formarse opiniones bien fundadas y, como consecuencia, para participar activamente en una democracia. Esa transparencia es asimismo un instrumento eficaz para desincentivar y por consiguiente limitar el riesgo de injerencia con la independencia editorial. Además, contribuye a un entorno de mercado abierto y justo y refuerza la rendición de cuentas de los medios en lo que respecta a los destinatarios de los servicios de medios de comunicación, contribuyendo en última instancia a la calidad de los servicios de medios de comunicación en el mercado interior. Por ello, es menester introducir requisitos comunes de información para los prestadores de servicios de medios de comunicación de la Unión. Tales requisitos deben incluir requisitos proporcionados y

(32) Funtsezkoa da hedabide-zerbitzuen hartzaileek ziur jakitea nortzuk diren hedabideen jabeak eta nortzuk dauden haien atzean, gauza izan daitezen interes-gatazka detektatzeko eta ulertzeko. Hori ezinbesteko baldintza da herritarrek ondo oinarritutako iritziak edukitzeko eta, ondorioz, demokrazian modu aktiboan parte hartzeko. Gainera, gardentasun hori tresna eraginkorra da independentzia editorialarekiko injerentziak gutxiarazteko eta, beraz, arrisku hori mugatzeko. Horretaz gain, merkatu irekia eta bidezkoa sustatzen du, eta hedabideek beren zerbitzuak jasotzen dituztenei kontuak ematea indartzen du, eta, horrek, azken finean, barne-merkatuko hedabide-zerbitzuen kalitatea hobetzen laguntzen du. Horregatik, ezinbestekoa da informazio-betekizun komunak ezartzea Batasuneko hedabide-zerbitzuen emaileentzat. Betekizun horiek proportzionatuak eta selektiboak izan behar dira, eta hedabide-zerbitzuen emaileei exijituko diete informazio egokia zabaltzea, beren jabetzari buruz eta agintaritzaren edo



selectivos que exijan a los prestadores de servicios de medios de comunicación la divulgación de información pertinente sobre su propiedad y sus ingresos publicitarios procedentes de autoridades o entidades públicas. Dicha información es necesaria para que los destinatarios de servicios de medios de comunicación puedan entender e informarse sobre posibles conflictos de intereses, en particular en casos en que los propietarios de los medios de comunicación tienen exposición política, como condición previa para su capacidad de determinar la fiabilidad de la información que reciben. Esto solo se puede lograr si los destinatarios de los servicios de medios de comunicación disponen de información actualizada sobre la propiedad de los medios de comunicación, en particular en el momento de ver, escuchar o leer contenidos de los medios de comunicación, para que puedan situar el contenido en el contexto correcto y tener una impresión certera de él. Por consiguiente, la divulgación de información específica sobre la propiedad de los medios de comunicación supondría un beneficio claramente mayor que la posible repercusión que la obligación de divulgación tendría sobre los derechos fundamentales, incluido el derecho a la vida privada y familiar y el derecho de protección de los datos personales. En dicho contexto, las medidas adoptadas por los Estados miembros en virtud del artículo 30, apartado 9, de la Directiva (UE) 2015/849 del Parlamento Europeo y del Consejo (11) no deben verse afectadas. Los prestadores de servicios de medios de comunicación correspondientes deben divulgar la información requerida en formato electrónico, por ejemplo en sus sitios web o por cualquier otro medio al que se pueda acceder de manera fácil y directa.

entitate publikoetatik lortzen dituzten publizitateko diru-sarrerei buruz. Informazio hori beharrezkoa da hedabide-zerbitzuen hartzaileek gerta daitezkeen interes-gatazkak ulertu ahal izateko eta haien berri izateko, batez ere hedabideen jabeek agerpen politikoa dutenean, ondoren jasotako informazioa fidagarria den ala ez erabaki ahal izateko. Hori lortzeko modu bakarra da hedabide-zerbitzuen hartzaileek hedabideen jabetzari buruzko informazio eguneratua edukitzea, batez ere hedabideetako edukiak ikusten, entzuten edo irakurtzen dituztenean, eduki bakoitza dagokion testuinguruan kokatzeko eta beraren gaineko iritzizuzena edukitzeko gauza izan daitezen. Horrenbestez, hedabideen jabetzari buruzko informazio espezifiko zabaltzeak ekarriko lukeen onura nabarmen handiagoa izango litzateke hura zabaltzeko beharrak oinarritzeko eskubideetan (bizitza pribaturako eta familiar-bizitzarako eskubidea eta datu pertsonalak babesteko eskubidea barne) edukiko lukeen eragina baino. Testuinguru horretan, estatu kideek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2015/849 Zuzentarauaren (11) 30. artikulua 9. apartatuari jarraikiz hartutako neurriek ez dute eraginik jasan behar. Hedabide-zerbitzuen emaileek formatu elektronikoan zabaltzeko behar dute eskatutako informazioa; esate baterako, beren webguneen bidez edo erraz eta zuzenean eskuratzeko moduko beste edozein bitarteko erabiliz.

(33) Para contribuir en mayor medida al alto nivel de transparencia en cuanto a la propiedad de los medios de comunicación, los

(33) Halaber, hedabideen jabetzaren inguruko gardentasun-maila handia izan dadin, estatu kideek hedabideen jabetzaren



Estados miembros también deben encomendar la creación de bases de datos de propiedad de los medios de comunicación a las autoridades u organismos reguladores nacionales, o a otras autoridades u organismos competentes. Esas bases de datos deben funcionar como una ventanilla única que permita a los destinatarios de los servicios de medios de comunicación comprobar con facilidad la información pertinente en relación con un determinado prestador de servicios de medios de comunicación. Habida cuenta de las especificidades administrativas nacionales y con vistas al objetivo de reducción de la carga administrativa, los Estados miembros deben contar con flexibilidad a la hora de decidir qué autoridad u organismo se ocupará de la creación de dichas bases de datos de propiedad de los medios de comunicación. Dicha autoridad u organismo, podría ser, por ejemplo, una autoridad u organismo regulador nacional u otro organismo administrativo que contara, a su vez, con la asistencia de otro organismo con los conocimientos adecuados para completar dicha función.

datu-baseak sortzeko agindu behar diete baita ere agintaritza edo organismo arautzaile nazionalai edo beste agintaritza edo organismo eskudun batzuei. Datu-base horiek leihatila bakar gisa funtzionatu behar dute, eta hedabide-zerbitzuen hartzaileei aukera eman behar diete erraz egiaztatzeko hedabide-zerbitzuen emaille jakin bati buruzko informazioa. Estatu kide bakoitzak bere administrazio-berezitasunak dauzkanez gero, eta administrazio-karga murrizte aldera, estatu kideek malgutasuna eduki behar dute erabakitzeke zer agintaritzak edo organismok sortuko dituen hedabideen jabetzaren datu-base horiek. Agintaritza edo organismo hori agintaritza edo organismo arautzaile nazionala izan daiteke, edo beste administrazio-organismoaren bat, eginkizun hori betetzeko ezagutza egokiak dauzkan beste organismo baten laguntza daukana.

(34) La integridad de los medios de comunicación también exige un enfoque proactivo para promover la independencia editorial de las empresas de medios de comunicación que ofrecen noticias y contenidos sobre cuestiones de actualidad, en particular a través de salvaguardias internas. Los prestadores de servicios de medios de comunicación deben adoptar medidas proporcionadas para garantizar la libertad de los editores para tomar decisiones editoriales dentro de la línea editorial arraigada del prestador de servicios de medios de comunicación. El objetivo de la protección de las decisiones editoriales, en particular las tomadas por los redactores jefe y los editores, de las injerencias indebidas acerca de contenidos concretos contribuye a garantizar tanto unas condiciones equitativas de

(34) Hedabideen osotasuna babestuko bada, ikuspegi proaktiboa behar da gaurkotasuneko gaien inguruko albisteak eta edukiak eskaintzen dituzten hedabide-enpresen independentzia editoriala sustatzeko, batez ere barne-babesen bidez. Hedabide-zerbitzuen emailleek neurri proportzionatuak ezarri behar dituzte editoreek askatasuna eduki dezaten hedabide-zerbitzuen emaillearen ildo editorial errotuarekin bat datozen erabaki editorialak hartzeko. Erabaki editorialak (batez ere erredaktore nagusiek eta editoreek hartzen dituztenak) eduki zehatzen inguruko bidegabeko injerentzietatik babestea lagungarria da bermatzeko, batetik, lehia-baldintza berak dauzkatela denek hedabide-zerbitzuen barne-merkatuan, eta, bestetik, zerbitzu horiek kalitatezkoak direla. Neurri horien helburua



competencia en el mercado interior de servicios de medios de comunicación como la calidad de dichos servicios. Esas medidas deben tener por objetivo asegurar el respeto de las normas relativas a la independencia a lo largo de todo el proceso editorial dentro de los medios de comunicación, en particular para salvaguardar la integridad del contenido periodístico. Dicho objetivo es también conforme al derecho fundamental de recibir y comunicar información recogido en el artículo 11 de la Carta. En vista de esas consideraciones, los prestadores de servicios de medios de comunicación también deben garantizar la transparencia de los conflictos de interés actuales o potenciales para con los destinatarios de sus servicios.

(35) Los prestadores de servicios de medios de comunicación deben adoptar salvaguardias internas con vistas a garantizar la independencia de las decisiones editoriales adaptadas a su tamaño, estructura y necesidades. La Recomendación (UE) 2022/1634 de la Comisión (12) facilita un catálogo de salvaguardias internas voluntarias que las empresas de medios de comunicación pueden adoptar a ese respecto. El presente Reglamento no debe interpretarse en el sentido de que priva a los propietarios de prestadores de servicios de medios de comunicación privados de sus prerrogativas de fijación de objetivos estratégicos o generales o de fomento del crecimiento y la viabilidad financiera de sus empresas. A ese respecto, el presente Reglamento debe reconocer que el objetivo de fomentar la independencia editorial necesita reconciliarse con los derechos e intereses legítimos de los propietarios de medios de comunicación privados, como son el derecho a determinar la línea editorial del prestador de servicios de medios de comunicación y el de decidir la composición de sus equipos editoriales.

izan behar da hedabideen barruko argitalpen-prozesu osoan independentziari buruzko arauak errespetatzen direla bermatzea, batez ere kazetaritza-edukiaren osotasuna babesteko. Helburu hori bat dator, halaber, informazioa jasotzeko eta komunikatzeko oinarritzko eskubidearekin (Gutunaren 11. artikulua). Aurreko gogoetak kontuan hartuta, hedabide-zerbitzuen emaileek beren zerbitzuen hartzaileekin dauzkaten edo eduki ditzaketen interes-gatazken gardentasuna ere bermatu behar dute.

(35) Hedabide-zerbitzuen emaileek barne-babesak ezarri behar dituzte beren erabaki editorialak independentziarekin hartu ahal izateko. Babes horiek beren tamainara, egiturara eta beharretara egokitu behar dituzte. Europako Batzordearen (EB) 2022/1634 Gomendioak (12) hedabide-enpresek har ditzaketen borondatezko barne-babesen katalogo bat eskaintzen du. Erregelamendu honen interpretazioa ez da izan behar hedabide-zerbitzu pribatuen emaileen jabeen eskumena kentzen diela haien helburu estrategikoak edo orokorrak ezartzeko edo enpresen hazkundera eta finantza-bideragarritasuna sustatzeko. Horri dagokionez, erregelamendu honek onartu behar du independentzia editoriala sustatzeko helburua bateratu egin behar dela hedabide pribatuen jabeen eskubide eta interes legítimoekin, hala nola hedabide-zerbitzuen emailearen ildo editoriala ezartzeko eskubidearekin eta talde editorialen osaera erabakitzeke eskubidearekin.



(36) Las autoridades u organismos reguladores nacionales independientes son fundamentales para una correcta aplicación de la normativa sobre medios de comunicación en toda la Unión. Si bien las autoridades u organismos reguladores nacionales con frecuencia no disponen de competencias relacionadas con el sector de la prensa, están en la mejor posición para garantizar la aplicación correcta de los requisitos relacionados con la cooperación normativa y un mercado de servicios de medios de comunicación que funcione bien, en general según lo contemplado en el presente Reglamento. Las autoridades u organismos reguladores nacionales deben contar con los recursos necesarios para cumplir sus funciones en lo que respecta a la plantilla, el personal especializado y los medios financieros, también para permitir su participación en las actividades Comité Europeo de Servicios de Medios de Comunicación (en lo sucesivo, «Comité»). Deben contar con recursos técnicos, como por ejemplo las herramientas digitales pertinentes. En su caso, los Estados miembros aumentarán en la medida de lo posible los recursos asignados a las autoridades u organismos reguladores nacionales, teniendo en cuenta las funciones adicionales que les confiere el presente Reglamento. Las autoridades u organismos reguladores nacionales deben asimismo tener las competencias adecuadas, en concreto para solicitar información y datos a cualquier persona física o jurídica a la que se aplique el presente Reglamento, o que, por motivos relacionados con sus actividades comerciales o empresariales o su profesión, podría razonablemente estar en posesión de la información y los datos necesarios, con respeto de los derechos e intereses de dichas personas.

(36) Agintaritza edo organismo arautzaile nazional independenteak funtsezkoak dira hedabideei buruzko araudia Batasunaren lurralde osoan behar bezala aplikatzeko. Agintaritza edo organismo arautzaile nazionalak askotan ez dute edukitzen prentsaren sektorearekin lotutako eskumenik, baina, hala ere, haiek dira egokienak araugintza-lankidetzarekin lotutako baldintzak behar bezala aplikatzen direla bermatzeko, bai eta ondo funtzionatzen duen hedabideen zerbitzu-merkatu bat bermatzeko ere, oro har, erregelamendu honetan aurreikusitakoari jarraikiz. Agintari edo organismo arautzaile nazionalak plantillari, langile espezializatuei eta finantza-baliabideei dagokienez dauzkaten eginkizunak betetzeko behar diren baliabideak eduki behar dituzte, eta Hedabide-zerbitzuen Europako Komitearen (aurrerantzean, «Komitea») jardueretan parte hartzeko behar dituztenak ere bai. Baliabide teknikoak eduki behar dituzte; esaterako, tresna digital egokiak. Hala badagokio, estatu kideek, ahal den neurrian, agintaritza edo organismo arautzaile nazionalak esleitutako baliabideak gehituko dituzte, erregelamendu honek ezartzen dizkien eginkizun gehigarrien arabera. Agintaritza edo organismo arautzaile nazionalak eskumen egokiak eduki behar dituzte, halaber, informazioa eta datuak eskatzeko erregelamendu hau aplikatzen zaien pertsona fisiko eta juridiko guztiei, edo —beren merkataritza- edo enpresa-jarduerekin edo lanbidearekin zerikusia duten arrazoiengatik— behar den informazioa eta datuak eduki ditzaketenei, betiere pertsona horien eskubideak eta interesak errespetatuta.

(37) Con el fin de garantizar que el presente Reglamento y otras normas de la Unión en materia de medios de comunicación se aplican

(37) Erregelamendu hau eta hedabideen arloko Batasuneko beste arau batzuk modu koherentean aplikatzen direla bermatzeko,



de forma coherente, es necesario crear el Comité como un organismo consultivo independiente a escala de la Unión que agrupe a las autoridades u organismos reguladores nacionales y coordine su actuación. En el desempeño de sus funciones y el ejercicio de sus competencias, el Comité debe ser totalmente independiente, también frente a cualquier influencia política o económica, y no debe pedir ni recibir instrucciones de ningún Gobierno, institución, ya sea nacional, supranacional o internacional, ni de ninguna persona u organismo público o privado. El Grupo de Entidades Reguladoras Europeas para los Servicios de Comunicación Audiovisual (ERGA, por sus siglas en inglés), establecido por la Directiva 2010/13/UE, ha desempeñado un papel esencial en la promoción de la ejecución coherente de dicha Directiva. El Comité debe, por tanto, continuar el trabajo llevado a cabo por el ERGA y sustituirlo. Para ello es necesario modificar de forma específica la Directiva 2010/13/UE suprimiendo su artículo 30 ter, por el que se establece el ERGA, y sustituyendo, en consecuencia, las referencias al ERGA y a sus funciones. La modificación de la Directiva 2010/13/UE por medio del presente Reglamento está justificada puesto que se limita a disposiciones que los Estados miembros no han de transponer y cuyos destinatarios son las instituciones de la Unión.

(38) El Comité debe reunir a representantes de peso de las autoridades u organismos reguladores nacionales. Las autoridades u organismos reguladores nacionales deben nombrar a dichos representantes. Cuando los Estados miembros cuenten con varias autoridades u organismos reguladores nacionales pertinentes, incluidos los de nivel regional, debe elegirse un representante común a través de procedimientos adecuados y el derecho de voto debe seguir limitado a un representante por Estado miembro. Las

Komitea sortu behar da, Batasun osorako kontsulta-organismo independente gisa, agintaritza edo organismo arautzaile nazionalak bil ditzan eta haien jarduna koordinatu dezan. Komiteak, bere eginkizunetan eta eskumenetan diharduela, erabat independentea izan behar du, baita influentzia politiko eta ekonomiko ororen aurrean ere, eta ez du eskatu edo jaso behar ezein gobernu edo erakunderen jarraibiderik (izan nazionala, nazioz gaidikoa edo nazioartekoa), ezta pertsona edo organismo publiko edo pribaturen jarraibiderik ere. 2010/13/EB Zuzentarauak ezarritako Ikus-entzunezko Hedabide Zerbitzuetarako Europako Entitate Arautzaileen Taldeak (ERGA, ingelesezko siglen arabera) funtsezko zeregina bete du zuzentaru horren betearazpen koherentea sustatzen. Komiteak, beraz, ERGAk egindako lanarekin jarraitu behar du, eta haren ordeztu jardun. Horretarako, 2010/13/EB Zuzentaruak berariaz aldatu behar da: ERGA ezartzen duen 30 ter artikulua ezabatu, eta, ondorioz, ERGAren eta haren funtzioen aipamenak ordeztu. 2010/13/EB Zuzentaruak erregelamendu honen bidez aldatzea justifikatuta dago; izan ere, estatu kideek transposizioerik egin behar ez duten xedapenetara mugatzen da, eta xedapen horien hartzaileak Batasuneko erakundeak dira.

(38) Komiteak agintaritza edo organismo arautzaile nazionalen ordezkari garrantzitsuak izan behar ditu. Agintaritza edo organismo arautzaile nazionalak ordezkari horiek izendatu behar dituzte. Estatu kide batean agintaritza edo organismo arautzaile nazional bat baino gehiago egonez gero (erregioetakoak barne), ordezkari komun bat hautatu behar da prozedura egokiaren bidez, eta estatu kide bakoitzean ordezkari batek izango du boto-eskubidea. Agintaritza edo organismo arautzaile



autoridades u organismos reguladores nacionales deben poder consultar y coordinar con las autoridades u organismos competentes pertinentes y, en su caso, con los organismos de autorregulación en sus Estados miembros para la realización de sus actividades dentro del Comité. Esto no debe afectar a la posibilidad de que las demás autoridades u organismos reguladores nacionales participen, según proceda, en las reuniones del Comité. El Comité también debe poder invitar a sus reuniones, en cada caso concreto, a expertos externos. También debe poder designar, de acuerdo con la Comisión, a observadores permanentes para que acudan a sus reuniones, incluidos, en particular, las autoridades u organismos reguladores nacionales de los países candidatos o candidatos potenciales, o delegados ad hoc de otras autoridades nacionales competentes.

nazionalak, Komitearen barruan beren jarduerak egiteko, aukera izan behar dute agintaritza edo organismo eskudun egokiei eta, behar denean, kasuan kasuko estatu kideetako autorregulazio-organismoek kontsultak egiteko eta haiekin koordinatzeko. Hori gorabehera, gainerako agintaritza edo organismo arautzaile nazionalak Komitearen bileretan parte hartu ahal izango dute, dagokion moduan. Halaber, Komiteak kanpoko adituak gonbidatu ahal izango ditu bere bileretara (kasuan kasukoak). Era berean, Batzordearekin ados jarrita, behatzaile iraunkorrak izendatu ahal izango ditu, bileretara joan daitezen, herrialde hautagaietako edo hautagai potentzialetako agintaritza edo organismo arautzaile nazionalak edo beste agintaritza nazional eskudun batzuen ad hoc ordezkariak barne.

(39) Debido a la naturaleza sensible del sector de los medios de comunicación y partiendo de la práctica de las decisiones del ERGA establecida en su reglamento interno, el Comité debe adoptar sus decisiones por mayoría de dos tercios de los votos. En concreto, el reglamento interno del Comité debe especificar el papel, las funciones y los procedimientos de nombramiento de las personas que ostenten la presidencia y la vicepresidencia, y las medidas para la prevención y la gestión de conflictos de interés de los miembros del Comité. Para apoyar a la presidencia y la vicepresidencia, el Comité debe contar con la posibilidad de establecer un equipo de dirección, cuya composición tendrá debidamente en cuenta el principio de equilibrio geográfico. El Comité debe determinar las disposiciones específicas para el equipo de dirección en su reglamento interno. La presidencia y vicepresidencia del ERGA, con el asesoramiento del Comité del ERGA, deben facilitar una transición ordenada,

(39) Hedabideen sektorea sentsiblea denez gero, eta ERGAk bere barne-erregelamenduan erabakiak hartzeaz ezarritakoa abiapuntutzat hartuta, Komiteak botoen bi herenen gehiengoz hartu behar ditu erabakiak. Hain zuzen ere, Komitearen barne-erregelamenduak zehaztu behar ditu lehendakariaren eta lehendakariordearen zereginak eta eginkizunak, eta haiek izendatzeko prozedurak, bai eta Komiteko kideen artean interes-gatazkarik ez izateko eta sortzen direnak kudeatzeko neurriak ere. Komiteak, lehendakariari eta lehendakariordeari laguntzeko, zuzendaritza-talde bat eratu ahal izango du, eta talde horren osakeran kontuan izango da oreka geografikoaren printzipioa. Komiteak zuzendaritza-taldeari buruzko berariazko xedapenak zehaztu behar ditu barne-erregelamenduan. ERGAren lehendakariak eta lehendakariordeak, ERGAren Komitearen aholkularitzarekin, ERGAtik Komiterako trantsizio ordenatua, gardena eta eraginkorra



transparente y eficaz del ERGA al Comité, hasta la elección de las personas que ostenten la presidencia y la vicepresidencia del Comité.

(40) En aquellos casos en que el Comité se ocupe de asuntos que no entren dentro del ámbito del sector audiovisual, debe confiar en un mecanismo de consulta eficaz en el que participen partes interesadas de los sectores de medios de comunicación pertinentes activos tanto a escala de la Unión como nacional. Dichos interlocutores podrían ser consejos de prensa, asociaciones periodísticas, sindicatos y asociaciones empresariales. El Comité debe otorgar a dichas partes interesadas la posibilidad de atraer la atención sobre las novedades y las cuestiones pertinentes de cada sector. El mecanismo de consulta debe permitir al Comité recopilar información específica de las partes interesadas pertinentes y obtener información útil para apoyar su labor. Al establecer las disposiciones del mecanismo de consulta en su reglamento interno, el Comité debe tener en cuenta la necesidad de transparencia, diversidad y representación geográfica equitativa. El Comité debe asimismo poder consultar al mundo académico para obtener información pertinente adicional.

(41) Sin perjuicio de las competencias que los Tratados confieren a la Comisión, es esencial que la Comisión y el Comité cooperen estrechamente, permitiendo al Comité proporcionar asesoramiento y apoyo a la Comisión en asuntos relacionados con los servicios de medios de comunicación dentro de su ámbito de competencia. El Comité debe apoyar activamente a la Comisión en sus funciones de garantizar la aplicación coherente y efectiva del presente Reglamento y la ejecución de la Directiva 2010/13/UE. A esos efectos, el Comité debe, en particular,

erraztu behar dute, harik eta Komiteko lehendakaria eta lehendakariordea hautatu arte.

(40) Komiteak, ikus-entzunezkoen sektoretik kanpoko gaiak aztertzen dituenean, kontsulta-mekanismo eraginkorra erabili behar du, eta mekanismo horretan, Batasun zein estatu mailan ari diren hedabideen sektoreetako alderdi interesdunek parte hartu behar dute. Solaskide horiek prentsa-kontseiluak, kazetaritza-elkarteak, sindikatuak eta enpresa-elkarteak izan daitezke. Komiteak aukera eman behar die alderdi interesdun horiei mahai gainean jartzeko sektore bakoitzeko berritasunak eta gaiak. Kontsulta-mekanismoaren bidez, Komitea gauza izan behar da alderdi interesdunen informazio espezifiko biltzeko eta haiei beren zereginean laguntzeko baliagarria den informazioa lortzeko. Komiteak, kontsulta-mekanismoari buruzko xedapenak barne-erregelamenduan ezartzean, kontuan eduki behar du beharrezkoak direla gardentasuna, aniztasuna eta ordezkaritza geografiko ekitatiboa. Halaber, Komiteak aukera eduki behar du sektore akademikoari kontsulta egiteko, informazio jakingarri gehiago lortzeko.

(41) Tratatuak Batzordeari ematen dizkieten eskumenak gorabehera, funtsezkoa da Batzordeak eta Komiteak lankidetzan estuan jardutea, eta Komiteak, bere eskumen-eremuaren barruan, aholkularitza eta laguntza ematea Batzordeari, hedabide-zerbitzuekin zerikusia duten gaien buruz. Komiteak aktiboki lagundu behar dio Batzordeari, erregelamendu hau koherentziaz eta eraginkortasunez aplikatzen dela eta 2010/13/EB Zuzentaraua betetzen dela bermatzeko. Horretarako, Komiteak aholkularitza eta laguntza eman behar dizkio



asesorar y asistir a la Comisión sobre los aspectos normativos, técnicos o prácticos pertinentes para la aplicación del Derecho de la Unión, promover la cooperación y el intercambio efectivo de información, experiencias y mejores prácticas, y redactar dictámenes en los casos que disponga el presente Reglamento, teniendo en cuenta, en su caso, la situación en cuanto a la libertad y el pluralismo de los medios de comunicación en los mercados de medios de comunicación de que se trate. Dichos dictámenes no deben ser jurídicamente vinculantes, sino que deben servir de orientación para las autoridades u organismos reguladores nacionales de que se trate y la Comisión podría tenerlos en consideración en su labor de asegurar la aplicación coherente y efectiva del presente Reglamento y la ejecución de la Directiva 2010/13/UE. Al hacer todo lo posible por poner en práctica los dictámenes del Comité, o al explicar correctamente cualquier desviación de ellos, se considerará que las autoridades u organismos reguladores nacionales han hecho todo lo posible por tener en cuenta los dictámenes del Comité.

Batzordeari, Batasuneko zuzenbidea aplikatzeko kontuan eduki beharreko araugintzako alderdiez, alderdi teknikoez eta alderdi praktikoez, lankidetzeta eta informazioaren, esperientzien eta jardunbide onenen truke eraginkorra sustatu behar ditu, eta irizpenak idatzi behar ditu erregelamendu honek xedatzen duen kasuetan, kontuan hartuta, hala badagokio, nolakoa den hedabideen askatasunaren eta pluralismoaren egoera kasuan kasuko hedabide-merkatuetan. Irizpen horiek ez dira izan behar juridikoki lotesleak; aitzitik, orientabide izan behar dute kasuan kasuko agintaritza edo organismo arautzaile nazionalentzat, eta Batzordeak kontuan har ditzake erregelamendu hau koherentziaz eta eraginkortasunez aplikatzeko eta 2010/13/EB Zuzentaraua betetzeko. Komitearen irizpenak praktikan jartzeko ahal den guztia egiten denean edo haietatik gertatutako desbideratzeak behar bezala azaltzen direnean, ulertuko da agintaritza edo organismo arautzaile nazionalak ahal den guztia egin dutela Komitearen irizpenak kontuan hartzeko.

(42) Para cumplir sus funciones de forma eficaz e independiente, el Comité debe contar con la asistencia de una secretaría dedicada a las actividades del Comité. La Comisión debe prestar los servicios de secretaría. La secretaría debe contar con los recursos adecuados para el desempeño de sus funciones. Sin perjuicio de la autonomía institucional y presupuestaria de la Comisión, es importante que esta tenga en cuenta las necesidades comunicadas por el Comité, en particular en relación con las cualificaciones, los conocimientos especializados y el perfil del personal de la secretaría para el desempeño efectivo de sus funciones. La secretaría también debe poder apoyarse en el conocimiento especializado y los recursos de las autoridades u organismos reguladores

(42) Komiteak, bere eginkizunak eraginkortasunez eta modu independentean betetzeko, bere jardueraz arduratuko den idazkaritza baten laguntza eduki behar du. Batzordeak eman behar ditu idazkaritza-zerbitzuak. Idazkaritzak baliabide egokiak eduki behar ditu bere eginkizunak betetzeko. Batzordearen erakunde-autonomia eta aurrekontu-autonomia eragotzi gabe, garrantzitsua da Batzordeak aintzat hartzea Komiteak jakinarazitako beharrak, batez ere idazkaritzako langileen gaitasunei, ezagutza espezializatuei eta profilari dagokienez, beren eginkizunak eraginkortasunarekin bete ditzaten. Gainera, idazkaritzak agintaritza edo organismo arautzaile nazionalen ezagutza espezializatua eta baliabideak erabiltzeko aukera ere izan behar du. Hori funtsezkoa



nacionales. Ello sería fundamental para asistir al Comité a la hora de preparar los documentos que deba emitir. Por lo tanto, la secretaría debe incluir un número adecuado de personal enviado en comisión de servicios por las autoridades u organismos reguladores nacionales para beneficiarse de sus competencias y experiencia. En su misión de contribuir a la ejecución independiente de las funciones del Comité, la secretaría debe seguir únicamente las instrucciones del Comité cuando apoye al Comité en el cumplimiento de sus funciones con arreglo al presente Reglamento. La secretaría debe prestar apoyo material, administrativo y logístico al Comité, y asistirle en el desempeño de sus funciones, en particular mediante la realización de actividades de investigación pertinentes o de actividades de recopilación de información.

(43) La cooperación normativa entre autoridades u organismos reguladores independientes en materia de servicios de medios de comunicación es esencial para lograr que el mercado interior de los servicios de medios de comunicación funcione correctamente. No obstante, la Directiva 2010/13/UE no establece un marco de cooperación estructurado para las autoridades u organismos reguladores nacionales. Desde la revisión del marco de la Unión para los servicios de comunicación audiovisual mediante la Directiva (UE) 2018/1808 del Parlamento Europeo y del Consejo (13), que amplió su ámbito de aplicación a las plataformas de intercambio de vídeos, la necesidad de cooperación estrecha entre las autoridades u organismos reguladores nacionales ha ido en constante aumento, en particular en cuanto a la resolución de casos de carácter transfronterizo. Esa necesidad también se justifica por los nuevos retos que afectan al entorno de los medios de comunicación de la Unión y que el presente Reglamento tiene por objeto abordar, también

izango litzateke Komiteari egin behar dituen dokumentuak prestatzen laguntzeko. Beraz, idazkaritzak behar beste langile eduki behar ditu, agintaritza edo organismo arautzaile nazionalak zerbitzu-eginkizunetan bidalita, haien eskumenez eta esperientziaz baliatzeko. Komitearen eginkizunak modu independentean betetzen laguntzeko, idazkaritzak Komitearen jarraibideak baizik ez ditu kontuan hartu behar, hari bere eginkizunak betetzen laguntzen dionean erregelamendu honen arabera. Idazkaritzak laguntza materiala, administratiboa eta logistikoa eman behar dizkio Komiteari, eta bere eginkizunak betetzen lagundu behar dio, batez ere ikerketa-jarduera egokiak eginez edo informazioa bilduz.

(43) Hedabide-zerbitzuen arloko agintaritza edo organismo arautzaile independenteen arteko araugintza-lankidetzak funtsezkoa da hedabide-zerbitzuen barne-merkatuak behar bezala funtzionatzeko. Hala ere, 2010/13/EB Zuzentarauak ez du lankidetzak-esparru egituraturik ezartzen agintaritza edo organismo arautzaile nazionalentzat. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2018/1808 Zuzentarauaren bidez (13) ikus-entzunezko hedabide-zerbitzuen Batasuneko esparrua berrikusi zenetik (zuzentarau horrek aplikazio-eremuan sartu zituen bideo-trukerako plataformak), agintaritza edo organismo arautzaile nazionalen arteko lankidetzak estua geroz eta beharrezkoagoa bihurtu da; bereziki, mugaz gaindiko kasuak ebazteari dagokionez. Batasuneko hedabideen inguruan sortu diren erronka berriek ere justifikatzen dute lankidetzaren behar hori. Erregelamendu honek erronka horiei heltzea du helburu, eta eginkizun berriak esleitzen dizkie agintaritza edo organismo arautzaile nazionalak.



encomendando nuevas funciones a las autoridades u organismos reguladores nacionales.

(44) Consciente de esos retos, y con el fin de responder a la necesidad de una cooperación más estrecha en el ámbito de los servicios de comunicación audiovisual, en 2020, el ERGA acordó un memorando de entendimiento que estableció mecanismos no vinculantes de cooperación transfronteriza para reforzar la aplicación de las normas de la Unión pertinentes para los servicios de comunicación audiovisual y los servicios de intercambio de vídeos a través de plataforma. Sobre la base de dicho marco voluntario y con el fin de garantizar la aplicación efectiva del acervo de la Unión en materia de medios de comunicación, de prevenir la aparición de nuevas barreras en el mercado interior de los servicios de medios de comunicación y de evitar la posible elusión de las normas aplicables por parte de prestadores deshonestos de servicios de medios de comunicación, resulta esencial establecer un marco claro y jurídicamente vinculante para que las autoridades u organismos reguladores nacionales cooperen entre sí de manera eficaz y eficiente dentro del marco jurídico establecido. Dicho marco es crucial para defender el principio del país de origen, que es una piedra angular de la Directiva 2010/13/UE, y para garantizar que las autoridades u organismos reguladores nacionales puedan supervisar a los prestadores de servicios de medios de comunicación pertinentes. El objetivo debe ser garantizar la aplicación coherente y eficaz del presente Reglamento y la ejecución de la Directiva 2010/13/UE, por ejemplo garantizando un intercambio fluido de información entre las autoridades u organismos reguladores nacionales o permitiendo abordar rápidamente las consultas relacionadas con cuestiones de jurisdicción. Cuando las autoridades

(44) Erronka horien jakitun, eta ikus-entzunezko hedabide-zerbitzuen arloko lankidetzak estuagoaren beharrari erantzuteko, 2020an, ERGAk akordio-memorandum bat adostu zuen, eta haren bidez, mugaz gaindiko lankidetzak-mekanismo ez-lotesleak ezarri zituen, ikus-entzunezko hedabide-zerbitzuek eta plataforma bidez bideoak trukatzeko zerbitzuek Batasunak emandako arauen aplikazioa sendotzeko. Borondatezko esparru horretan oinarrituta, eta hedabideei buruzko Batasunaren araudia eraginkortasunez aplikatzen dela bermatzeko, hedabide-zerbitzuen barne-merkatuan oztopo berriak ez sortzeko eta hedabide-zerbitzuen emaile maltzurrek aplikatu beharreko arauak itzuri egitea saihesteko, ezinbestekoa da esparru argi eta juridikoki loteslea ezartzea agintaritzak edo organismo arautzaile nazionalak lankidetzan jardun dezaten, modu efikaz eta efiziente batean, ezarritako esparru juridikoaren barruan. Esparru hori funtsezkoa da jatorrizko herrialdearen printzipioa defendatzeko, zeina 2010/13/EB Zuzentarauaren giltzarria baita, eta bermatzeko agintaritzak edo organismo arautzaile nazionalak hedabide-zerbitzuen emaileak ikuskatu ahal izatea. Helburua izan behar da bermatzea erregelamendu hau modu koherentean eta eraginkorrean aplikatzen dela eta 2010/13/EB Zuzentaraua betetzen dela, adibidez, agintaritzak edo organismo arautzaile nazionalen arteko informazio-truke arina bermatuz edo jurisdikzio-arazoekin lotutako kontsultei azkar heltzeko aukera emanez. Agintaritzak edo organismo arautzaile nazionalak informazioa trukatzeko dutenean, informazio-trukeari buruzko Batasuneko zuzenbide eta zuzenbide nazional guztia errespetatu behar da, datu-



u organismos reguladores nacionales intercambien información, debe respetarse toda el Derecho de la Unión y nacional pertinente en materia de intercambio de información, incluida el Derecho en materia de protección de datos pertinente. Dicha cooperación, y en particular la cooperación acelerada, es de vital importancia para apoyar las acciones destinadas a proteger el mercado interior de dichos prestadores deshonestos de servicios de medios de comunicación, garantizando al mismo tiempo el respeto de los derechos fundamentales, en particular la libertad de expresión. En particular, la cooperación acelerada es necesaria para evitar que los servicios de medios de comunicación que han sido suspendidos en determinados Estados miembros con arreglo al artículo 3, apartados 3 y 5, de la Directiva 2010/13/UE sigan prestándose vía satélite o por otros medios en dichos Estados miembros, y contribuir así, de conformidad con el Derecho de la Unión, al efecto útil de las medidas nacionales pertinentes. Los dictámenes del Comité serán importantes para el funcionamiento eficaz del mecanismo de cooperación.

(45) Debido a la naturaleza paneuropea de las plataformas de intercambio de vídeos, las autoridades u organismos reguladores nacionales necesitan contar con una herramienta específica para proteger a los usuarios de los servicios de intercambio de vídeos a través de plataforma de determinados contenidos ilícitos y nocivos, también cuando se trate de comunicaciones comerciales. En particular, sin perjuicio del principio del país de origen, es necesario un mecanismo que permita a cualquier autoridad u organismo regulador nacional pertinente solicitar a su homólogo que adopte las medidas necesarias y proporcionadas para garantizar el cumplimiento de las obligaciones por parte de los prestadores de plataformas

babesari buruzko zuzenbidea barne. Lankidetza hori (batez ere lankidetza azeleratua) oso garrantzitsua da barne-merkatua hedabide-zerbitzuen emaila maltzurretatik babesteko ekintzak bultzatzeko, eta, aldi berean, bermatzeko errespetatzen direla oinarritzko eskubideak, eta bereziki, adierazpen-askatasuna. Bereziki, lankidetza azeleratua beharrezkoa da 2010/13/EB Zuzentarauaren 3. artikuluaen 3. eta 5. apartatuei jarraikiz estatu-kide batzuetan eten diren hedabide-zerbitzuak satelite bidez edo beste bitarteko batzuen bidez estatu horietan ematen ez jarraitzeko, eta, horrela, Batasuneko Zuzenbidearekin bat etorritik, dagozkion neurri nazionalen eragina baliagarria izan dadin laguntzeko. Komitearen irizpenak garrantzitsuak izango dira lankidetza-mekanismoaren funtzionamendu eraginkorrerako.

(45) Bideo-trukerako plataformen izaera paneuroparra dela eta, agintaritzak edo organismo arautzaile nazionalak tresna espezifiko bat behar dute plataformen bidez bideoak trukatzeko zerbitzuak erabiltzen dituztenak zilegi ez diren edukietatik eta eduki kaltegarrietatik babesteko, baita komunikazio komertzialen kasuan ere. Hain zuzen ere, jatorrizko herrialdearen printzipioa eragotzi gabe, mekanismo bat behar da, agintaritzak edo organismo arautzaile nazional guztiei aukera ematen diena beren homologoei eskatzeko har ditzatela behar diren neurri proportzionatuak bideo-trukerako plataformen hornitzaileek beren betebeharrak betetzen dituztela bermatzeko, 2010/13/EB Zuzentarauaren 28 ter



de intercambio de vídeos con arreglo al artículo 28 ter, apartados 1, 2 y 3, de la Directiva 2010/13/UE. Esto es fundamental para garantizar que las audiencias, y en particular los menores, estén eficazmente protegidos en toda la Unión a la hora de acceder a los contenidos de las plataformas de intercambio de vídeos y que puedan contar con un nivel adecuado de transparencia en lo que respecta a las comunicaciones comerciales en línea. La mediación y los dictámenes del Comité permitirán garantizar resultados mutuamente aceptables y satisfactorios para las autoridades u organismos reguladores nacionales de que se trate. Cuando el uso de dicho mecanismo no conduzca a una solución amistosa, la libertad de facilitar servicios de la sociedad de la información desde otro Estado miembro solo puede restringirse cuando se hayan cumplido las condiciones previstas en el artículo 3 de la Directiva 2000/31/CE del Parlamento Europeo y del Consejo (14) y se haya seguido el procedimiento que se establece en él.

artikuluaren 1., 2. eta 3. apartatueta ezartzen denarekin bat etorritik. Hori funtsezkoa da audientzia, eta, batez ere, adingabeak modu eraginkorrean babestuta egon daitezen Batasun osoan, bideo-trukerako plataformen edukiak eskuratzen dituztenean, eta gardentasun-maila egokia eduki dezaten lineako merkataritza-komunikazioei dagokienez. Komitearen bitartekotzari eta irizpenei esker bermatu ahal izango da emaitzak onargarriak eta onuragarriak izatea kasuan kasuko agintaritza edo organismo arautzaile nazionalentzat. Mekanismo hori erabili arren adiskidetasunezko konponbiderik lortzen ez bada, informazioaren gizarteko zerbitzuak beste estatu kide batetik emateko askatasuna kasu honetan bakarrik murriztu ahal izango da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/31/EE Zuzentarauaren (14) 3. artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen badira eta bertan ezartzen den prozedura aplikatzen bada.

